



GIZARTE JAKINTZAK

- Batzuek **Europaren nagusitasunaren berezitasunaren historia** egingo dute. Horrela jokatzek denean, agian, europagintza-era jakin bat edo beste legitimatzea da helburua. Halakotzat jo daiteke Ch.-Olivier Carbonell-en aipatu liburua. Honela dio bertan: "(...) helburua (...) iragan ahaztuegia oroitzea; zibilizazio komunitate handi baten iragan luzea ahanzturatik ateratzea (...)" kultur nortasun gero eta "prometeikoagoaren" sorrera eta garapenaren historia egiteko asmotan edo.

Beste batzuk, berriz, saiatu dira erakusten, kritika eginez, **ispilu tronpatzaileak direla halako ikusmoldeak**. Halakoa da arestian aipatu dugun Josep Fontanaren liburua. Bertan azaltzen digu europar batzuek —eta askok batzuetan- sortu dituzten ispilu itxuragabetzaileen bitartez, euren buruaren irudia laudatu eta munduko besteak arbuizaten dituztela.

- **Gizarte erak** aztertzeari ekiten badiogu, hots, gizarte mota ezberdinak zertan diren, batetik bestera nola pasatzen den, haiek nahasita zein gizarte zehatz sortu diren aztertzen badugu, talde borrokak izango ditugu ardatz gure historiagintzan. European, azken 2000 urteetan, esklabismoa, feudalismoa eta kapitalismoa izan dira. Garbi dago kasu horretan gure interesa oraingo gizartea aldatzea eta antolatzea izango litzatekeela.

Zentzu horretan, **ekonomialari** batzuek —Keynesek— ongizate estatua teorizatu dute eta beste batzuek —Marxek— gizarte zanpaketa. Beste ekonomialari eta antropologo batzuk, berriz, gizarte hobe eta zuzenagoa eratzeko esperantzan ari dira, "opatzearen" edo "hirugarren sektorea" izeneko elkartasun-ekonomia aztertuz gero ondoriozta daitekeenez (ikus, ekonomia alternatiboez, La Revue du M.A.U.S.S. 21. zk. "L'Alter-économie. Quelle 'autre mondialisation'?" 2003, eta "opatzearen" ekonomiaz, Jacques T. Godbout "Le don, la dette et l'identité" Paris, 2000.)

- **Ikerketa estatu eretan zentra daiteke**. Greziako estatu hiria, "barbaroen" antolamendu politikoak, Erromako Errepublika eta Inperioa, Estatu feudala eta monarkia absolutua, Estatu liberala, demokratikoa, sozialista... Kasu honetan gure helburua izan daiteke Europar Batasuna antolatzeke estatu edo organizazio politiko berria asmatzea, izan ere, hiritartasun ezberdinak —greziar hiri estatuena, erromatarra, monarka absolutuen sujetena, estatu nazionalakoa, eta abar— aztertu behar dira, bestelako bat asma eta sor dezagun. Irudimen handia eta asmamen sakona beharko dira aurrera egiteko.

Arlo horretan, **zuzenbide** ikerleek europar hiritartasunaz jarduten dutenean, indarrean dagoen hiritartasun europarraren aldekoek erakutsiko digute oraingo estatu etno-nazionalaren alde ari direla. Horiek kultura-mugak eta politika-mugak berdindu nahi izan dituzte, izan ere, mintzagai dugun gaiari dagokionez adibidez, estatu-hiritartasunetik eratorri dute hiritartasun europarra. Jakina, bestelako hiritartasun europarrak egin daiteke. Esate baterako, europar lurraldetasuna irizpidetzat hartuta. Hori oso baliagarria izan daiteke Europako herrien integrazioa gauzatzeko bidean, hiritarren Batasuna eraiki dezagun eta ez "nazionalen" (hots, estatu kide nazionalitate-dunen) Batasuna (ikus, adibidez, María Fraile Ortiz, "El significado de la ciudadanía europea" Madril, 2003. Batez ere, 87., 381-6. orr.).

- **Ideien historia eginez gero**, Europaren ideien nondik norakoak ezagututa, agian Europa eraikitzeke oraingo era bat edo beste sinesgarritzen edo deslegitimatzek ahaleginduko gara. Batzuek hiritarren Europa teorizatzen dute herrien Europaren kontra eta oraingo estatuen Europaren alde. Edo bestela, gizakiak euren arazoak ideien bitartez zelan azaldu eta konpontzen saiatzen diren ulertu nahian ibiliko gara, geure korapiloak eta asmoak antzemanda, irtenbide aproposak planteatzeko.
- **Europako emakumeen historiaz ere idatzi da**. Emakumeen borroka eta aurrerabidea europagintzari lotzeko izan daiteke, agian, batak bestea legitimatzeko. Horregatik, apika, (Gisela Bock. Bartzelona, 2001) "La mujer en la historia de Europa" bezalako izenburuak. Aipatzekoa da Germaine Tillion-en "Il était une fois l'ethnographie" (Paris, 2000) lana. Bertan maisuki azaltzen ditu autoreak, emakumeei



buruz ari dela, genero-ikusmoldearen mediterraniar batasuna, erlijio ezberdintasunak gorabehera. Mediterraneoko kristau eta musulmanen faktore komunak nabarmentzen ditu eta, hortaz, posible da, jakitun egonda, bidegintza komunik bilatzea.

- Agian **etnogenesisia** kontzeptua erabiliko dugu gure jakin-min historikoaren ardatz nagusitzat. Europaren kasuan noiz jaio edo sortu zen antzematen saiatuko gara (nola saiatu baita, adibidez, R. Bartlett, "The Making of Europe" London, 1993). Baina orain, gainera, jakin nahi genuke, epe luzean zein laburrean, Europa herri berria sortzeak haren herri osagaien desagerpena ekarri behar duen edo ez berekin, zelan gerta litekeen halakorik, zelakoa izan litekeen emaitza (ikus Europaz L.N. Gumilev "La búsqueda de un reino imaginario" Bartzelona, 1994. 239. orr. eta iragana ikusteko historia-ikusgailu aproposa egokiro fokatzearen garrantziaz, 15.-18. orr.) edo Europa kultura pluralaren eremu politikoa izango ote den (ikus M. Mitchell eta D. Russell "Immigration, Citizenship and the Nation-State in the New Europe" 66.-67. orr. in B. Jenkins eta S. A. Sofos (ed.) "Nation and Identity in Contemporary Europe" London, 1996.).

